

politiken irizpideak kontuan hartzen dira: biodibertsitatea, ingurumen-soinuaren kalitatea, kultura- eta natura-ondarearen zaintza...).

Horrenbestez, ingurumena ebaluatzeko aipatutako irizpideak oinarritzat hartu dira errepide-sarea hobetzeko jardueren ingurumen-irizpideetan.

4. SAREAREN AZTERKETA, ADIERAZLEEN BIDEZ

Kapitulu honetan, planaren xede den sareko errepideetan hautemandako arazo nagusiak adierazi dira. Horietako bakoitzaren azterketa xehea memoria honen 4. eranskinean aurki daiteke.

4.1. EDUKIERA HANDIKO LEHENTASUNEN SAREA

4.1.1 Zeharkako sekzioak

Edukiera handiko lehentasuneko sarea osatzen duten zazpi errepideetatik, N-I errepidean soilik aurki daiteke 9 metro baino gutxiagoko plataforma duen bide-zatia; bide-zati hori Gipuzkoan dago, 466,0-479,6 KPen artean, gutxi gorabehera.

4.1.2 Kurbadura-erradioa

Halaber, N-I errepidean soilik aurki daitezke behar besteko kurbadura-erradioa ez duten bide-zatiak. Zehazki, Araban, 450 metro baino gutxiagoko kurbadura-erradioak dituzten bide-zatiak KP hauetan aurki daitezke:

- ☐ KP: 325,6 – 326,6.
- ☐ KP: 335,0 – 336,2.
- ☐ KP: 339,5 – 339,6.

Gipuzkoari dagokionez, hauek dira 265 metro baino gutxiagoko kurbadura-erradioak dituzten N-I errepideko bide-zatiak, bitan banatutako sekzioan:

- ☐ KP: 406,0 – 412,0; Etxegarateko mendatearen inguruan.
- ☐ KP: 431,0 – 432,0; Alegia udalerriaren inguruan.
- ☐ KP: 447,0 – 453,0; Andoain eta Lasarte-Oriaren artean.
- ☐ KP: 454,0 – 456,0; Lasarte-Oriaren eta Donostiaren artean.
- ☐ KP: 462,0 – 463,0; Pasaia udalerriaren inguruan.

Bestalde, Gipuzkoan, bikoiztu gabe dagoen sekzioari dagokionez, N-I errepideko honako bide-zati hauetan daude 130 metro baino gutxiagoko kurbadura-erradioak, gutxi gorabehera:

- ☐ KP: 465,0 – 467,0; Erreterria udalerriaren inguruan.
- ☐ KP: 472,0 – 474,0; N-638 errepidearen bidegurutzetik hurbil.
- ☐ KP: 476,0 – 480,0; Irunen inguruan.

4.1.3 Zerbitzu-maila

Edukiera handiko lehentasuneko sarea osatzen duten errepideei dagokionez, A-8, N-I eta N-637 errepideetako bide-zati batzuetan soilik aurki daitezke E eta F zerbitzu-mailak; gainerako bideetan, zirkulazio-baldintzak onak dira.

A-8 autobidean, F maila dago Bilboko eta Donostiako metropoli-areetan. N-I errepidean, berriz, F mailako bide-zati bat dago, Lasarteren eta Andoain iparraldearen artean; bide-zati hori baino apur bat lehenago (Tolosa eta Andoain artean) eta Pasaia eta Irun artean, bestalde, E zerbitzu-maila aurki daiteke.

Zerbitzu-mailari dagokionez, arazoak dituzten bide-zatiak honako hauek dira, gutxi gorabehera:

F zerbitzu-maila

- ☐ A-8 autobidea
 - KP: 17,8 – 19,7.
 - KP: 22,5 – 23,0.
 - KP: 110,5 – 131,0.
- ☐ N-I errepidea
 - KP: 447,7 – 453,7.
- ☐ N-637 errepidea
 - KP: 8,5 – 12,0.

E zerbitzu-maila

- ☐ A-8 autobidea
 - KP: 131,0 – 132,3.
- ☐ N-I errepidea
 - KP: 444,7 – 447,7.

- KP: 466,3 – 481,5.

4.1.4 Istripuen Kontzentrazio Tarteak (IKT)

Edukiera handiko lehentasuneko sareko errepideei dagokienez, Istripuen Kontzentrazio Tarteak A-8 autobideko eta N-I errepideko zona batzuetan soilik aurki daitezke; gainerako bideek baldintza egokiak dituzte segurtasunaren ikuspegitik.

IKTak sareko honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

❑ A-8 autobidea

A-8 autobidean, bost dira Istripuen Kontzentrazio Tarteak (IKT): bi Gipuzkoan eta hiru Bizkaian.

Gipuzkoako IKTak Donostian eta horren saihebidetaren inguruan daude (20,5 – 21,9 eta 16,9 – 18,0 kilometro puntuen artean).

Ekialdetik mendebaldera, Bizkaiko hiru IKTak honako leku hauetan aurki daitezke:

- AP-68 ordainpeko autobidearen sarreraren ondoren, Basaurin (KP: 113,4 – 115,1).
- Bilboko metropolian, Retuerto eta Barakaldo artean (KP: 121,4 – 123,1).
- Kantabriako mugatik hurbil, Pobeñan (KP: 135,2 – 137,0).

❑ N-I errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak lau dira, eta Armiñónen eta Donostian inguruan daude.

Arabako bi IKTak Armiñón eta Estavillo arteko bide-zatian daude, Burgosko mugatik hurbil (327,0 – 328,0 eta 328,1 – 329,1 kilometro puntuen artean).

Gipuzkoako bi IKTak, berriz, honako zona hauetan daude:

- Alegia inguruan (KP: 431,0 – 432,1).
- Pasaiaiko udalerrian (KP: 463,6 – 464,5).

4.1.5 Aurreratzeak egiteko aukera

Edukiera handiko lehentasuneko sareari dagokionez, N-I errepidean soilik dago aurreratu ezin den bide-zatia; debeku horrek, zehazki, ibilbidearen %5,6 – %5,7 hartzen du, eta errepidearen azken zatian dago, Donostian eta Irunen artean.

4.1.6 Abiadura-jaitsierak

Edukiera handiko lehentasuneko sarean ez dago abiadura nabarmen jaitsi behar den bide-zatirik.

4.1.7 Zirkulazio-jarraitutasuna

N-I errepidearen azken zatian (KP: 466,8 – 481,5), zirkulazioak ez du jarraitutasunik.

4.2. PORTU ETA AIREPORTUETARA IRISTEKO LEHENTASUNEKO SAREA

4.2.1 Zeharkako sekzioak

Portuetara eta aireportuetara iristeko lehentasuneko sareko bost errepidetatik bitan soilik daude 9 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalera duten bide-zatiak: N-638 eta N-639 errepideetan.

Bide-zati horiek KP hauetan daude, gutxi gorabehera:

- ❑ N-638 errepidea, KP: 0,0 – 2,2.
- ❑ N-639 errepidea, KP: 15,7 – 23,1.

4.2.2 Kurbadura-erradioak

Bide-tipologiari eta lurralde-motari dagokienez dela-eta, kurbadura-erradioen urritasunak dituzten hainbat bide-zati daude portu eta aireportuetara iristeko errepide guztietan. Bide-zati horiek, hain zuzen, honako hauek dira:

450 metro baino gutxiagoko erradioak

- ❑ N-624 errepidea
 - KP: 10,7 – 11,0.

265 metro baino gutxiagoko erradioak

- ❑ N-624 errepidea
 - KP: 7,6 – 8,0.
- ❑ N-633 errepidea
 - KP: 12,0 – 12,4.
- ❑ N-644 errepidea
 - KP: 131,7 – 132,3.

130 metro baino gutxiagoko erradioak

- ☐ N-638 errepidea
 - KP: 1,0 – 1,4.
- ☐ N-639 errepidea
 - KP: 16,1 – 24,0.

4.2.3 Zerbitzu-maila

Portu eta aireportuetara iristeko lehentasuneko sarean, ez dago F zerbitzu-maila duen bide-zatirik.

E zerbitzu-maila N-638 (Hondarribiko aireporturako sarbidea) eta N-639 (Bilboko kanpoko portuaren lotura) errepideen luzera guztian E maila dago; gainerakoetan, zirkulazio-baldintzak egokiak dira.

4.2.4 Istripuen Kontzentrazio Tarteak

Portu eta aireportuetara doazen lehentasuneko sareko errepideei dagokienez, Istripuen Kontzentrazio Tarteak N-638 eta N-639 errepideko zona batzuetan soilik aurki daitezke; gainerako bideek baldintza egokiak dituzte segurtasunaren ikuspegitik.

IKTak sareko honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

- ☐ N-638 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarte bat dago, errepidearen hasieran (N-I errepidearen loturatik gertu); zehazki, Mugondo udalerraren inguruan (KP: 1,0 – 2,0).
- ☐ N-639 errepidea

Errepide horretan, bi dira guztira Istripuen Kontzentrazio Tarteak.

 - IKT bat Santurtzi inguruan (KP: 16,0 – 17,0).
 - Eta bigarrena, La Cuesta-Aldapa inguruan (KP: 20,0 – 21,1).

4.2.5 Aurreratzeak egiteko aukera

Portu eta aireportuetara iristeko lehentasuneko sareari dagokionez, N-638 eta N-639 errepideetan soilik daude aurreratu ezin den bide-zatiak; bi errepideetan, gainera, ibilbide-luzera guztiaren %60 hartzen dute (bi noranzkoetan).

4.2.6 Abiadura-jaitsierak

N-644 errepidean soilik dago abiadura nabarmen jaitsi behar den bide-zatia, 130,7 eta 131,1 kilometro puntuen artean.

4.2.7 Zirkulazio-jarraitutasuna

Zirkulazioan jarraitutasunik gabeko bide-zatiak N-638 eta N-639 errepideetan daude; zehazki, honako hauek dira:

- ☐ N-638 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, 0,0 eta 2,3 kilometro puntuen artean.
- ☐ N-639 errepidearen ibilbide guztian ere (15,9 eta 24,13 kilometro puntuen artean) zirkulazioa etena da.

4.3. LEHENTASUNEKO SAREKO GAINERAKO ZATIA

4.3.1 Zeharkako sekzioak

Lehentasuneko sareko gainerako zazpi errepidetatik lautan, 9 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalera duten bide-zatiak aurki daitezke; zehazki, honako errepide hauetan: N-240, N-629, N-634 eta N-636. Bestalde, N-121-A errepidearen ibilbide guztian, 9 metro baino gutxiagoko plataforma dago.

Aipatutako bide-zati horiek KP hauetan daude, gutxi gorabehera:

- ☐ N-121-A errepidea: ibilbide-luzera guztian.
- ☐ N-240 errepidea: Bizkaiko hainbat bide-zatitan.
 - KP: 11,2 – 23,2.
 - KP: 25,4 – 29,9.
 - KP: 33,1 – 36,1.
 - KP: 38,2 – 43,2.
- ☐ N-629 errepidea
 - KP: 60,8 – 64,7.

❑ N-634 errepidea: Bizkaiko hainbat bide-zatitan.

- KP: 65,5 – 67,5.
- KP: 69,9 – 73,1.
- KP: 74,7 – 78,1.
- KP: 80,8 – 90,2.
- KP: 91,3 – 95,5.
- KP: 96,7 – 136,2.

Bestalde, errepide horren Gipuzkoako zatiaren %82n, plataformak 9 metro baino gutxiagoko zabalera du.

❑ N-636 errepidea: Bizkaiko honako bide-zati hauetan

- KP: 35,2 – 40,2.
- KP: 41,5 – 42,4.
- KP: 43,7 – 44,0.
- KP: 45,0 – 51,2.

❑ N-636 errepidea: Gipuzkoako honako bide-zati hauetan

- KP: 0,0 – 2,0.
- KP: 7,2 – 7,8.
- KP: 9,2 – 9,8.
- KP: 10,8 – 13,1.
- KP: 15,0 – 17,8.
- KP: 21,9 – 24,1.
- KP: 29,9 – 30,2.
- KP: 33,4 – 35,2.

4.3.2 Kurbadura-erradioak

Kurbadura-erradio egokiak dituen N-104 errepidean salbu, lehentasuneko sareko gainerako errepideetan kurbadura-erradioan urritasunak dituzten bide-zatiak daude; urritasun horiek bide-tipologiaren eta lurraldearen ondorio dira. Bide-zati horiek, hain zuzen, honako hauek dira:

450 metro baino gutxiagoko erradioak

❑ N-240 errepidea

- KP: 8,9 – 9,3.

265 metro baino gutxiagoko erradioak

❑ N-124 errepidea

- KP: 37,4 – 38,6.

❑ N-240 errepidea

- KP: 15,8 – 19,6.
- KP: 22,2 – 22,6.

❑ N-634 errepidea

- KP: 99,1 – 99,4.
- KP: 102,0 – 102,2.

130 metro baino gutxiagoko erradioak

❑ N-121-A errepidea

- KP: 70,4 – 71,2.
- KP: 7,3 – 73,5.
- KP: 75,7 – 77,3.

❑ N-240 errepidea

- KP: 23,3 – 27,1.
- KP: 28,5 – 30,4.
- KP: 38,7 – 45,0.

❑ N-629 errepidea

- KP: 60,9 – 64,7.

❑ N-634 errepidea

- KP: 66,3 – 73,9.
- KP: 78,0 – 78,3.
- KP: 97,1 – 97,8.
- KP: 107,8 – 109,3.
- KP: 116,1 – 117,6.
- KP: 119,0 – 133,9.

Gipuzkoan, N-634 errepidean, bihurtune guztiek 130 metro baino gutxiagoko erradioak dituzte.

❑ N-636 errepidea

- KP: 35,0 – 39,3.
- KP: 43,8 – 45,3.
- KP: 49,7 – 51,2.

4.3.3 Zerbitzu-maila

Lehentasuneko sareko gainerako errepideetan, ez dago F zerbitzu-mailako bide-zatirik.

E zerbitzu-maila honako errepide hauetako bide-zati gehienetan dago: N-104, N-634 (zirkulazio-intentsitate txikia duten bide-zatietan edo errepidea bitan banatzen den zonan, Bilboko metropoliaren inguruan salbu) eta N-636 (errepide-hasieran eta Elorrio inguruan bitan banatuta dauden hiru bide-zatietan izan ezik), bai eta N-124 errepidearen ibilbide-luzera guztian ere. Errepide horietan, beraz, funtzionamendu-baldintzak ez dira egonkorak, eta, erabilera-baldintza normalak apur bat aldatzen direnean, pilaketak sortzeko joera dute.

N-240 errepideko zenbait bide-zatitan ere E zerbitzu-maila dago; bide-zati horiek, gutxi gorabehera, honako leku hauetan daude:

❑ N-104 errepidea

- KP: 354,1 – 358,0.
- KP: 359,4 – 363,6.

❑ N-240 errepidea

- KP: 14,7 – 21,0 (A-623 errepideko loturaren eta Ubide udalerriaren artean).

- KP: 30,5 – 36,2 (Barazarko mendatea).

- KP: 42,0 – 55,4 (Elejabeitia eta A-8 autobidearen loturaren arteko azken bide-zatia).

❑ N-634 errepidea

- KP: 0,0 – 19,1.
- KP: 22,2 – 23,0.
- KP: 27,7 – 30,9.
- KP: 34,0 – 44,3.
- KP: 54,0 – 91,9.
- KP: 113,7 – 136,2.

❑ N-636 errepidea

- KP: 29,8 – 35,2.
- KP: 39,7 – 43,0.
- KP: 44,9 – 51,1.

4.3.4 Istripuen Kontzentrazio Tarteak

Lehentasuneko sareko gainerako errepideei dagokienez, Istripuen Kontzentrazio Tarteak N-124, N-240 eta N-634 errepideko zona batzuetan soilik aurki daitezke; azken horretan daude, gainera, kontzentrazio-tarte gehien (11). Gainerako bideek baldintza egokiak dituzte, segurtasun-ikuspegitik.

Beraz, IKTak sareko honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

❑ N-124 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak bi dira errepide horretan, eta Lacorzanilla inguruan daude, N-I errepidearen (KP: 28,3 – 29,4) eta Gatzaga Buradonen (KP: 32,7 – 33,8) hegoaldetik lau bat kilometrora.

❑ N-240 errepidea

Hiru IKT daude, eta guztiak Araban. Lehenengo biak Legutiano inguruan daude, A-623ko loturatik gertu; zehazki, noranzko bakoitzeko errei bat duen errepidea Urrunagako urtegitik pasatzen den bide-zatian (14,6 – 15,6 eta 16,6 – 17,6 kilometro puntuen artean).

Hirugarren IKTa, berriz, iparralderago dago, Ollerias udalerriaren eta Bizkaiko mugaren artean (KP: 20,5 – 21,5).

❑ N-634 errepidea

Errepide horretan hamaika IKT daude guztira; horietatik, hamar Bizkaian daude eta gelditzen den bakarra Gipuzkoan.

Bizkaiko Istripuen Kontzentrazio Tarteak honako leku hauetan daude:

- Bost IKT Bilboko metropolian; zehazki, Urgoil, Bekea, La Cruz eta Ariz-Ventas nukleoek osatutako karratuaren barruan (KP: 98,5 – 106,0).
- Beste hiru Bilbao eta Kantabriako mugaren artean, Ortuella, Las Carreras eta Somorrostro udalerrietan (KP: 124,7 – 133,0).
- Beste bi Euba eta Amorebieta-Etxano udalerrietan (KP: 84,0 – 95,0).

Gipuzkoari dagokionez, Istripuen Kontzentrazio Tarteak Azpilgoeta inguruan dago (KP: 51,8 – 53,1).

4.3.5 Aurreratzeak egiteko aukera

Lehentasuneko sareko gainerako errepideetan, aurreratzeak egiteko baldintza egokiei dagokienez urritasunak dituzten bide-zatiak daude; zehazki, honako errepide hauetan: N-104, N-121-A, N-124, N-240, N-629, N-634 eta N-636.

Hain zuzen:

- ❑ N-104 errepidearen luzeraren %60 baino zati handiagoan, debekatuta dago aurreratzea, bi zirkulazio-noranzkoetan.
- ❑ N-121-A errepidean, berriz, ezin da aurreratu ibilbide-luzeraren %45en, bi noranzkoetan; debeku horrek ez du luzeraren %60 gainditzen.
- ❑ N-124 errepidearen %60 baino zati handiagoan debekatuta dago bi noranzkoetan aurreratzea.
- ❑ Aurreratu ezin den bide-zatia luzera guztiaren %60 baino txikiagoa da N-240 errepideko bi noranzkoetan; zehazki, gorako bidean, %51,2ra iristen da debeku hori, eta, beherakoan, %42,5era.
- ❑ N-629 errepidearen luzeraren %25-38an debekatuta dago aurreratzea; debeku hori ez da %60 baino handiagoa.
- ❑ N-634 errepidean, ezin da aurreratu goraka doan ibilbidearen %59n eta beheraka doan ibilbidearen %57an; beraz, debekuak ez dio ibilbide-luzeraren %60ri baino zati handiagoari eragiten.

- ❑ N-636 errepidearen %54-57n debekatuta dago aurreratzea, eta, beraz, debekuak ez du ibilbidearen %60 gainditzen.

4.3.6 Abiadura-jaitsierak

- ❑ N-636 errepidean bi bide-zatitan abiadura jaitsi behar da. Lehenengoa, Zumarraga inguruan dago (KP: 10,5 eta 11,7), eta, bigarrena, Deskargako mendatean (KP: 15,5 – 16).
- ❑ N-634 errepidean, berriz, abiadura-jaitsiera honako bide-zati hauetan gertatzen da:
 - KP: 14 – 15; Orio inguruan.
 - KP: 33—34; Zumaia eta Deba artean (Itziarko mendatean).
 - KP: 62 – 62,7, Eibarren.
 - KP: 68 – 69,5; Areitioko mendatean.

4.3.7 Zirkulazio-jarraitutasuna

Zirkulazioan jarraitutasunik ez duten bide-zatiak N-104, N-121-A, N-124, N-240, N-634 eta N-636 errepideetan daude.

Zehazki, honako bide-zati hauek dira:

- ❑ N-104 errepidean, zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar.
- ❑ N-121-A errepidean ere zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar (KP: 70,5 – 77,5).
- ❑ Halaber, N-124 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar (KP: 24 – 38).
- ❑ N-240 errepidean, berriz, zirkulazio-etena 15 eta 55 kilometro puntuen artean dago.
- ❑ N-634an, ostera, zirkulazioak ez du jarraitutasunik ibilbide-luzeraren bide-zati hauetan: KP: 0 – 98; KP: 108 – 109 eta KP: 113 – 136.
- ❑ Azkenik, N-636 errepidean, zirkulazio-etena hiru bide-zatitan dago: 4,5 eta 24,5 kilometro puntuen artean, 29,8 eta 41,6 kilometro puntuen artean, eta 43,9 – 51,2 kilometro puntuen artean.

4.4. ERREPIDE-SARE NAGUSIA

Lehentasuneko sareko errepideek baino intentsitate gutxiago duten errepideek osatzen dute errepide-sare nagusia; baina, hala ere, edukiera-, segurtasun- eta geometria-faltari dagokionez, urritasun gehiago ditu.

4.4.1 Zeharkako sekzioak

Errepide-sare nagusiko hogeita bat errepideetatik, bitan soilik daude ibilbide guztian zehar 8 metrotik gorako zabalera duten plataformak: A-627 eta BI-637 errepideetan. Bestalde, BI-630 errepidean, aipatutako balioa baino plataforma txikiagoa du ibilbide guztian zehar.

Gainerako errepideetan, 8 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak dituzten bide-zatiak daude. Aipatutako bide-zati horiek KP hauetan daude, gutxi gorabehera:

❑ A-124 errepidea

- KP: 40,1 – 41,3.
- KP: 42,5 – 45,0.
- KP: 54,3 – 55,6.
- KP: 57,0 – 59,5.
- KP: 63,6 – 66,9.
- KP: 70,5 – 71,4.

❑ A-132 errepidea

- KP: 28,7 – 33,4.

❑ A-623 errepidea

- KP: 6,6 – 16,6.

❑ A-624 errepidea

- KP: 21,9 – 31,1.
- KP: 40,3 – 44,6.
- KP: 46,0 – 46,6.
- KP: 55,3 – 60,3.

❑ A-625 errepidea

- KP: 354,2 – 359,2.

❑ BI-604 errepidea

- KP: 2,7 – 7,4.

❑ BI-623 errepidea

- KP: 27,9 – 39,0.
- KP: 40,1 – 45,7.
- KP: 48,7 – 48,8.

❑ BI-624 errepidea

- KP: 64,4 – 67,0.

❑ BI-625 errepidea

- KP: 351,3 – 352,0.
- KP: 353,2 – 354,2.
- KP: 373,3 – 378,3.
- KP: 380,3 – 380,9.
- KP: 382,3 – 383,0.
- KP: 384,4 – 396,0.

❑ BI-631 errepidea

- KP: 0,0 – 1,3.
- KP: 4,7 – 4,9.
- KP: 11,7 – 12,1.
- KP: 13,3 – 14,9.
- KP: 17,9 – 30,8.
- KP: 31,9 – 35,3.

- ❑ BI-633 errepidea
 - KP: 31,5 – 31,6.
 - KP: 45,5 – 45,7.
 - KP: 50,5 – 53,0.
 - KP: 54,0 – 56,8.
- ❑ BI-635 errepidea
 - KP: 17,3 – 17,9.
 - KP: 20,5 – 22,2.
 - KP: 28,0 – 33,1.
- ❑ BI-636 errepidea
 - KP: 6,0 – 15,3.
 - KP: 16,4 – 16,6.
 - KP: 34,1 – 34,4.
- ❑ BI-638 errepidea
 - KP: 8,0 – 9,2.
- ❑ GI-131 errepidea
 - KP: 0,1 – 6,4.
 - KP: 7,9 – 14,7.
- ❑ GI-627 errepidea
 - KP: 18,1 – 40,6.
 - KP: 43,7 – 54,1.
- ❑ GI-631 errepidea
 - KP: 4,7 – 8,9.
 - KP: 12,3 – 33,0.
- ❑ GI-638 errepidea
 - KP: 0,0 – 7,9.

4.4.2 Kurbadura-erradioak

Errepide-sare nagusiko hogeita bat errepideetatik, bitan soilik daude ibilbide guztian zehar 130 metrotik beherako zabalera duten plataformak: A-627 eta GI-638 errepideetan.

Errepide-sareko gainerako errepideetako zenbait bide-zatitan, kurbadura-erradioaren urritasunak daude, errepide horien lurraldea kontuan hartuta. Bide-zati horiek, hain zuzen, honako hauek dira:

265 metro baino gutxiagoko erradioak

- ❑ A-124 errepidea
 - KP: 40,2 – 41,3.
 - KP: 43,4 – 43,6.
 - KP: 44,9 – 45,0.
 - KP: 54,4 – 55,3.
 - KP: 56,6 – 56,7.
 - KP: 57,7 – 57,8.
 - KP: 59,8 – 59,9.
 - KP: 63,6 – 65,0.
 - KP: 66,2 – 70,3.
 - KP: 72,3 – 72,5.
- ❑ A-132 errepidea
 - KP: 2,9 – 3,1.
 - KP: 12,6 – 12,7.
 - KP: 14,8 – 18,4.
 - KP: 19,7 – 23,1.
 - KP: 26,5 – 29,9.
 - KP: 31,1 – 33,1.
 - KP: 35,3 – 35,5.
 - KP: 38,1 – 39,2.

- ❑ A-623 errepidea: luzeraren %70 baino gehiago.
- ❑ A-624 errepidea: luzeraren %70 baino gehiago.
- ❑ A-625 errepidea: luzeraren %80 baino gehiago.
- ❑ A-627 errepidea: luzeraren %42 baino gehiago.

130 metro baino gutxiagoko erradioak

- ❑ BI-604 errepidea
 - KP: 2,8 – 3,4.
 - KP: 4,6 – 7,4.
- ❑ BI-623 errepidea
 - KP: 30,1 – 31,5.
 - KP: 33,1 – 40,0.
 - KP: 48,7 – 48,8.
- ❑ BI-624 errepidea
 - KP: 64,7 – 67,0.
- ❑ BI-625 errepidea
 - KP: 354,2 – 354,3.
 - KP: 374,4 – 380,0.
 - KP: 395,8 – 395,9.
- ❑ BI-630 errepidea
 - KP: 30,1 – 31,6.
 - KP: 33,1 – 42,3.
- ❑ BI-631 errepidea
 - KP: 0,0 – 1,3.
 - KP: 3,3 – 3,5.
 - KP: 5,7 – 6,9.
 - KP: 19,8 – 21,8.

- KP: 24,2 – 35,2.
- ❑ BI-633 errepidea
 - KP: 38,5 – 39,1.
 - KP: 50,6 – 56,6.
- ❑ BI-635 errepidea
 - KP: 17,3 – 18,7.
 - KP: 19,8 – 22,4.
 - KP: 22,5 – 22,9.
 - KP: 24,3 – 30,0.
- ❑ BI-636 errepidea
 - KP: 6,2 – 7,4.
 - KP: 10,8 – 12,0.
 - KP: 13,2 – 13,6.
 - KP: 15,1 – 15,3.
- ❑ BI-637 errepidea
 - KP: 8,7 – 9,1.
 - KP: 13,4 – 13,6.
 - KP: 17,1 – 18,2.
- ❑ BI-638 errepidea
 - KP: 8,0 – 9,2.
- ❑ GI-627 errepidea
 - KP: 18,1 – 19,0.
 - KP: 19,8 – 29,0.
 - KP: 35,6 – 40,0.
 - KP: 51,2 – 52,3.
 - KP: 55,1 – 56,4.

❑ GI-631 errepidea

- KP: 3,0 – 4,0.
- KP: 5,0 – 10,0.
- KP: 13,5 – 14,6.
- KP: 18,6 – 19,2.
- KP: 20,7 – 21,1.
- KP: 21,8 – 32,0.

4.4.3 Zerbitzu-maila

Errepide-sare nagusiko gainerako errepideetan, ez dago F zerbitzu-mailako bide-zatirik.

E zerbitzu-maila honako errepide hauen luzera guztian dago: A-627, BI-604, BI-635, BI-638, GI-131 eta GI-638; beraz, ibilgailu-pilaketak eta zirkulazio-egoera ezegonkorak agerian geratzen dira.

Halaber, E zerbitzu-maila dute A-625, BI-623, BI-625, BI-631, BI-633, GI-627 eta GI-631 errepideek; horiek, gutxi gorabehera, honako KP hauetan daude:

❑ A-625 errepidea

- KP: 360,7 – 372,2.

❑ BI-623 errepidea

- KP: 27,9 – 38,8.
- KP: 48,4 – 48,9.

Arabako mugatik hurbilen dagoen zonan, Otxandio inguruan eta errepidearen amaierako zatian, Durango aldean.

❑ BI-625 errepidea

- KP: 372,5 – 387,4.

❑ BI-631 errepidea, Bilbao eta Mungia artean.

- KP: 5,2 – 9,0.
- KP: 12,2 – 18,9.

❑ BI-633 errepidea

- KP: 31,5 – 33,4.
- KP: 44,9 – 54,2.
- KP: 56,1 – 61,8.

❑ GI-627 errepidea

- KP: 18,0 – 19,3.
- KP: 27,2 – 56,3.

E zerbitzu-maila dago errepide guztian zehar, zortzi kilometroko bide-zati batean salbu; zehazki, Arabango gainaren parean.

❑ GI-631 errepidea

- KP: 8,2 – 18,9.
- KP: 26,0 – 34,5.

Errepide-sare nagusiko gainerako errepideetan, zirkulazio-baldintza onak daude.

4.4.4 Istripuen Kontzentrazio Tarteak

Errepide-sare nagusian, honako errepide hauetako zenbait zonatan, Istripuen Kontzentrazio Tarteak daude: A-124, A-132, A-623, A-624, A-625, A-627, BI-623, BI-625, BI-631, BI-633, BI-635, GI-131, GI-627, GI-631 eta GI-638.

Zehazki, IKTak sareko honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

❑ A-124 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak bi dira, eta Laguardia eta Assa udalerrien inguruan daude (62,8 – 63,8 eta 73,5 – 74,6 kilometro puntuen artean, hurrenez hurren).

❑ A-132 errepidea

Errepide honetan ere, Istripuen Kontzentrazio Tarteak bi dira: bata, Argandoñaren inguruan (KP: 7,8 – 8,9), eta bestea, errepidearen erdialdean, Birgara Goienen (KP: 22,9 – 23,9).

❑ A-623 errepidea

Errepide honetan, Istripuen Kontzentrazio Tarte bakarra dago, Legutiano inguruan (KP: 18,6 – 19,7).

❑ A-624 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak lau dira, eta honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

- Lehenengoa, Altube inguruan (KP: 24,3 – 25,3).
- Eta gainerako hirurak, Urquillo eta Amurrio udalerrien artean daude, 30,1 – 21,2; 33,0 – 34,0 eta 38,8 – 40,0 kilometro puntuen artean.

❑ A-625 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak lau dira, eta honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

- Lehengo biak errepidearen hasieran daude, Amurrio hegoaldean (KP: 354,2 – 355,4 eta 356,1 – 357,2).
- Gainerako biak Amurrio eta Laudio udalerrien artean daude, 360,8 – 361,9 eta 371,1 – 372,3 kilometro puntuen artean.

❑ A-627 errepidea

Errepide honetan ere, Istripuen Kontzentrazio Tarteak bi dira: bata, Urbina udalerriaren inguruan dago (KP: 15,1 – 16,1), eta, bestea, Gipuzkoako mugaren inguruan (KP: 17,1 – 18,1).

❑ BI-623 errepidea

Errepide honetan ere, Istripuen Kontzentrazio Tarteak bi dira, eta Durango eta Urkiola inguruan daude (27,8 – 29,2 eta 39,6 – 40,7 kilometro puntuen artean).

❑ BI-625 errepidea

Bi dira Istripuen Kontzentrazio Tarteak, eta Arabako mugaren eta Ugao-Miraballesen artean aurki daitezke (374,9 – 375,9 eta 377,3 – 378,3 kilometro puntuen artean).

❑ BI-631 errepidea

Errepide honetan, Istripuen Kontzentrazio Tarte bakarra dago, 28,5 eta 29,9 kilometro puntuen artean.

❑ BI-633 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak hiru dira, eta honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

- Lehenengoa, 32,0 eta 33,0 kilometro puntuen artean.
- Bigarrena, 42,8 eta 43,8 kilometro puntuen artean.
- Eta hirugarrena, 51,0 eta 52,0 kilometro puntuen artean.

❑ BI-635 errepidea

Errepide honetan lau IKT daude eta horiek guztiak Amorebietaren eta Zugaztietaren artean daude; zehazki, honako kilometro puntu hauen artean: 23,4 – 24,4; 24,5 – 25,5; 25,9 – 27,0 eta 27,5 – 28,5.

❑ GI-131 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarte bakarra dago, N-I errepidearen loturaren ondoan, Andoain inguruan (KP: 0,3 – 1,3).

❑ GI-627 errepidea

Istripuen Kontzentrazio Tarteak bi dira, eta honako bide-zati hauetan aurki daitezke:

- Lehenengoa, Arabarekin muga egiten duen Gipuzkoako bide-zatian, A-627 errepideko bigarren IKTaren jarraian (KP: 18,1 – 19,1).
- Bigarrena, Eskoriatza eta Aretxabaleta artean (KP: 28,8 – 30,0).

❑ GI-631 errepidea

Errepide honetan, Istripuen Kontzentrazio Tarte bakarra dago, Zestoa inguruan, hain zuzen (KP: 0,3 – 1,3).

❑ GI-638 errepidea

Azken errepide honetan, Istripuen Kontzentrazio Tarte bakarra dago, 0,1 eta 1,1 kilometro puntuen artean.

4.4.5 Aurreratzeak egiteko aukera

Errepide-sare nagusiko errepideetan, aurreratzeak egiteko baldintza egokiak dituzten bide-zatiei dagokienez, honako urritasun hauek daude:

- ❑ A-124 errepidean, debekatuta dago aurreratzea ibilbide-luzeraren %42 baino zati handiagoan, bi noranzkoetan; beraz, ez da ibilbidearen %60 gainditu.
- ❑ A-132 errepidean, berriz, ezin da aurreratu ibilbide-luzeraren %50en, bi noranzkoetan, eta, beraz, debeku horrek ere ez du luzeraren %60 gainditzen.
- ❑ A-623 errepidean, berriz, ibilbidearen %60 gainditzen du aurreratze-debekuak: %69, gorako noranzkoan eta %76 beherakoan. BI-623, errepidean, aldiz, debekuak ibilbidearen %50i eragiten dio, bi noranzkoetan.

- ❑ A-624an, beherako noranzkoan, debekuak ibilbidearen %60 hartzen du, eta gorako noranzkoan, berriz, %57an.
- ❑ A-625 eta BI-625 errepideek osatutako ibilbidean, ezin da aurreratu bi errepideetako ibilbide-luzeraren %60an baino zati handiagoan, bi noranzkoetan; A-625 errepideari dagokionez, debekuak luzeraren %69an du eragina eta BI-625 errepidean, luzeraren %70 baino zati handiagoan.
- ❑ A-627 eta GI-627 errepideetan, aurreratze-debekua %60tik gorakoa da; zehazki, A-627 errepidean, luzeraren %70ean du eragina debekuak, eta, GI-627 errepidean, luzeraren %64an.
- ❑ BI-604 errepidean aurreratze-debekuak ez du ibilbide-luzeraren %60 gainditzen; gorako noranzkoan, luzeraren %14an ezin da aurreratu eta, beherako noranzkoan, %46an (goranzkoan baino ehuneko askoz ere handiagoa).
- ❑ Aurreratu ezin den bide-zatia %60 baino txikiagoa da BI-624 errepideko bi noranzkoetan; zehazki, gorako bidean, %58 hartzen du debeku horrek, eta, beherakoan, %56.
- ❑ BI-630 errepidearen luzeraren %60an baino zati handiagoan, debekatuta dago aurreratzea, bi zirkulazio-noranzkoetan; gutxi gorabehera, ibilbidearen %69an eragiten du debeku horrek.
- ❑ BI-631 errepidean, berriz, aurreratze-debekuak ibilbidearen %60ri baino zati txikiagoari eragiten dio: %43ri, gorako noranzkoan, eta, %76ri, beherakoan.
- ❑ BI-633 errepidearen beherako noranzkoan, debekatuta dago aurreratzea ibilbide-luzeraren %60an baino zati handiagoan (%64,7), eta, gorako noranzkoan, berriz, debekua ehuneko horren oso antzekoa da (%59,1).
- ❑ BI-635ean, aurreratze-debekuak ibilbidearen %60 gainditzen du; zehazki, ibilbide-luzeraren %69an eragiten du gorako noranzkoan eta, %76an, beherakoan.
- ❑ BI-636 errepidean ere aurreratze-debekuak ibilbidearen %60 gainditzen du; zehazki, ibilbide-luzeraren %65i eragiten dio gorako noranzkoan, eta, %64ri, beherakoan.
- ❑ BI-637 errepideari dagokionez, luzeraren %12,7an soilik dago debekatuta aurreratzea, bi noranzkoetan.
- ❑ GI-131 errepidearen luzeraren %60an baino zati handiagoan debekatuta dago aurreratzea, bi zirkulazio-noranzkoetan; zehazki, gorako noranzkoan ibilbidearen %69ri eragiten dio debekuak, eta, beherako noranzkoan, %75i.
- ❑ GI-631 errepidean, berriz, aurreratze-debekuak beherako noranzkoan soilik eragiten dio ibilbide-luzeraren %60ri baino zati handiagoari; gorako noranzkoan, berriz, ibilbide-luzeraren %54ari eragiten dio.

- ❑ GI-638 eta BI-638 errepideetan, aurreratze-debekuak ibilbide-luzeraren %60ri baino zati handiagoari eragiten dio, bi noranzkoetan. GI-638an, debekuak ibilbide-luzeraren %73-74 hartzen du, eta, BI-638an (luzeran kilometro bakarra du), ibilbide guztian zehar ezin da aurreratu.

4.4.6 Abiadura-jaitsierak

Errepide-sare nagusian, honako bide-zati hauetan daude abiadura-jaitsierako arazoak:

- ❑ A-124 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura:
 - KP: 41,7 – 42,3; Labastida inguruan.
 - KP: 56,7 – 57,1; Samaniego aldean.
- ❑ A-132 errepidean, abiadura-jaitsierak 13 eta 17 KPen artean gertatzen dira, Azatzetako mendatearen parean.
- ❑ A-623an ez dago abiadura-jaitsierako bide-zatirik; aldiz, BI-623an, 5 kilometroko bide-zatian abiadura jaitsi behar da (Urkiolako mendatearen parean).
- ❑ A-624 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura: 21,9 – 23,7; 27,6 – 28,1; 31,4 – 32,7; 34,7 – 34,9; 38,1 – 38,9; 42,9 – 43,2; 47,4 – 48,7; eta 54,9 – 57,1 (kilometro puntuak).
- ❑ A-625ean ez dago abiadura-jaitsierako bide-zatirik; aldiz, BI-625an, bide-zati bat dago, 383,9 eta 385,2 kilometro puntuen artean (Arrigorriaga udalerriaren inguruan).
- ❑ A-627 errepidean ere ez dago abiadura-jaitsierako bide-zatirik; Gipuzkoako zatian (GI-627), berriz, abiadura-jaitsierako bide-zati bat dago, 52,2 eta 53 kilometro puntuen artean (Soraluze inguruan).
- ❑ BI-604an, halaber, abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Deustuko irteeran.
- ❑ BI-624 errepidean, abiadura-jaitsierako bide-zati bat dago 64,9 eta 65,7 KPen artean, Peñueco udalerriaren inguruan.
- ❑ BI-630 errepidean, halaber, abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Herboso udalerriaren inguruan.
- ❑ BI-631n, oster, etenak daude honako bide-zati hauetan:
 - KP: 3,8 – 6; Bilbao eta Begoña artean.
 - KP: 13,2 – 13,4; San Isidroren iparraldean.
 - KP: 20,4 – 21,4; Mungia eta Larrauri artean.
 - KP: 24,6 – 27,4, Sollubeko mendatean.

- ❑ BI-633 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura:
 - KP: 33,05 – 33,75; San Lorenzo udalerriaren inguruan.
 - KP: 34,15 – 34,45; aurrekoaren jarraian dagoen bide-zatia.
 - KP: 35,5 – 37,05; Osmo udalerriaren inguruan.
- ❑ BI-635 errepidean, abiadura bi bide-zatitan jaitsi behar da; biak ere Amorebietan inguruan.
- ❑ BI-636an, ostera, abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Balmaseda eta Burgosko mugaren artean.

4.4.7 Zirkulazio-jarraitutasuna

Errepide-sare nagusiko errepide guztietako zirkulazioan etenak daude.

5. 1999-2005 ALDIAN, PLANAREN XEDE DEN SAREAN EGINDAKO LANAK EDO EGITEN ARI ZIRENAK

Euskadiko Errepideen Bigarren Plan Orokorraren Berrikuspenari dagozkion jarduerak egiten hasi aurretik, garrantzitsua da Errepideen Bigarren Planean aurreikusitako jarduera eta ekimen guztien berrikuspen zehatza egitea, bai azken urteetan egin direnak, bai egun egiten ari direnak.

Lurralde historikoak banan-banan aztertuz, **honako hauek dira planaren xede den sarean 1999-2005 aldian egindako jarduera nagusiak:**

❑ Araba

Duten garrantzia dela-eta, Vitoria-Gasteiz eta Eibar arteko autobideko lanak aipatu behar dira, Lukoren eta Gipuzkoako mugaren artean; lan horiek amaitzen direnean, Euskadiko errepide-sareko zirkulazioa berregituratuko du.

Era berean, zenbait errepidetan egin diren egokitzapenak eta hobekuntzak aipatu behar dira: N-I errepidean (Langraitzeko sarbidea N-I errepidetik, A-2622 saihebidetia), A-132an (Birgara – Maeztu – Santikurutze Kanpezu – Nafarroako muga), A-624an (Menagarai – Artziniega eta saihebidetia, A-2604ko elkargunean) eta A-625ean (Luiandoko saihebidetia eta A-3622ko loturaren artean). Amurrioko eta Miñano Mayorreko ekialdeko saihebidetia osatzen dute aldi horretan egindako lan nagusien zerrenda.

Aurrekoek gain, edukiera handitzeko jarduerak egin dira N-I errepidean (N-102aren lotura hobetu eta A-4301 eta A-4305 errepideekin –Rivaguda eta Rivabellosarako sarbideak– maila bera ez duen lotura

egin) eta N-240 errepidean (Gamarra eta Miñano artekoa); halaber, N-102 errepideko sarbideak berrantolatu eta ezkereranzko biraketak kendu dira (KP: 343,49 – 348,14).

❑ Bizkaia

Duten garrantzia dela-eta, Txorierriko korridorea amaitzeko lanak azpimarratu behar dira; izan ere, hegoaldeko bide antolamenduaren edo A-8 autobidearen edukiera handiko lehenengo ibilbide alternatiboa da. Horrez gain, N-637 errepidearen ihesbidetia ere balio du, bai eta zeharkatzen dituen udalerrietako hiri-guneak arintzeko ere (batez ere, Zamudion eta Lezaman). Oro har, korridorearen ekialdeko zatia (Erletxeta parean) lotura zuzena du A-8 autobidearekin; hegoaldeko zatia, halaber, A-8arekin lotzen da, Errontegiko zubiaren bidez (Bizkaiko golkoaren kostaldearen noranzkoa du, baita alderantzizkoa ere).

Era berean, Artxandako tuneletako lanak aipatu behar dira, Bilboko zenbait sarbideetako zirkulazioa berrantolatu eta Bizkaiko hiriburuaren hiri-hedapena bultzatzen baitu. Horrez gain, Asuako ibarrera, Loiuko aireportura eta Txorierriko korridore berrira iristeko lotura hobeak eskaintzen ditu. Ibarrekolandako loturaren eta Deustuko behe saihebidetia loturaren bidez, ostera, BI-3704 errepidea (Deusto – Enekuri – Asua) Euskaldunako zubiarekin lotu nahi da, horrela Bilboko erdigunearekin konexio zuzena izango baitu.

Azterketa-aldian, ekialdeko saihebidetia lanak ere egin dira, Orueta eta Ibarsusi arteko bide-zatia, zehazki. Bilbao inguratzeak aukera ematen duen saihebidetia horretako lanak amaitzean, Txurdinaga, Otxarkoaga eta Begoñako agintazio-zirkulazioa arinduko da.

Ballontiko ardatzaren helburua ezkeraldeko auzoen mugikortasuna hobetzea da, eta, horretarako, auzo horietako tokiko bideak nahiz Balparda eta Nocedal artekoak A-8arekin lotu behar dira; hori dela-eta, hirian sartzeko azpiegitura berria egin da, eta, horrez gain, Balbardako lotura birmoldatu da.

Bilboren eta Bizkaiko golkoaren kostaldearen arteko edukiera handiko zirkulazioa hazi egin daitekeela-eta, A-8 autobidearen edukiera handitzearen alde egin da, eta, beraz, hainbat jarduera egin dira: Gurutzetako lotura aldatzea eta portuko loturaren eta Gallartaren artean hirugarren erreia egitea, besteak beste.

A-8 eta A-68 autobideak edukiera handiko bide batez (Zaratamo – Arrigorriaga autobia) lotzeko, bide-zati horretan A-68 autobidearekin lotzeko zeuden sarbideak birmoldatu dira; bide horri esker, hain zuzen, ibilbide luzeko zirkulazioa eta tokikoa bide beretik ibiltzeak sortzen dituen arazoak konpondu ahal izango dira.